



AIARAKO UDALAK 2023ko OTSAILAREN 23an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Susana Martín Benavides andrea
José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna
Karmele Población Martínez andrea
Marian Mendiguren Mendibil andrea
Koldo Mendioroz Goldaraz jauna
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2023ko urtarrilaren 23an egindako ohiko osoko bilkurako akta.

Ez da gaiaren gaineko iruzkin egin, beraz, 2023ko urtarrilaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaraturako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dute.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Udaleko gizarte-zerbitzuak emateko aldi-baterako mantenurako erabakiaren seigarren luzapena.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko otsailaren 14ko Gizarte eta Osasun, Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza azaltzeko aurrekoetan esan zutela errepikatzen dutela: Aldundiak prestazio guztiak zentralizatzen ditu, eta haiek uste dute aurkakoa egin beharko zela, gizarte-zerbitzuak herritarrengana hurbildu beharko lirakekeela, ez Gasteizen zentralizatu.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza erantzuteko zerbitzuak ez direla zentralizatzen ari, udal- eta eskualde-mailako zerbitzuak modu berean ematen ari dira.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek). Hori dela bide,

IKUSI DA. - Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (aurrerantzean, GZL) 42. artikulua aurreikusten duen bezala, Udalaren ardura da honako funtzio hauek betetzea:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarriko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da-eta. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.

IKUSI DA. - GLZren 2. artikulua, era berean, gizarte-zerbitzuei eskubide subjektiboa ematen die, 2016ko abenduaren 26an hobetuko dena.

AINZAT HARTU DA. - Arauzko eskakizun horiek berehala aplikatuko direla; hortaz, honako hau jakinarazten da:

- a) GZLren 42. artikulua, Legean jasotako erreferentziazko beste araudiek bezala, udalaren eskumenak zerbitzua behar bezala ematek bereizten dituela.
- b) GZLren helburu argi eta erabakigarria dela udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuak elkarrekin eman daitezkeela (GZLren 28.2. eta 29.4. artikulua).
- c) Helburu hori bereziki nabaria dela Arabako Lurralde Historikoa; izan ere, bertako udalerri batek ere gainditzen du 20.000 biztanleen atalasea, Vitoria-Gasteiz ez ezik. Aiara udalerriaren kasuan gauza bera gertatzen da: 3.000 biztanle baino gutxiago ditu.
- d) Partekatutako zerbitzu hori, era berean, GZLren 36.5. artikuluan aholkatzen da Gizarte Zerbitzuen Mapak foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko dituela aintzakotzat. Bere garaian Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onetsi zen, eta gaur egun oraindik zehazteke dago udal-mugaketaz gaindiko lurralde batean eman beharreko gizarte-zerbitzuak emateko modua.
- e) Udal honek ezin dituela gizarte-zerbitzu horiek eman bere kabuz, eskala nahikoa ez izateagatik ezta Lurralde Historikoko Mapa ez egokitzeagatik.
- f) Oraindik ez dela gizarte-zerbitzu horiek modu elkartuan edo beste bide instituzional baten bidez kudeaketa partekatuaren formula adostu.
- g) Gaur egun arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta hitzarmenen bidez udaleko zerbitzuen zati handi bat ordaintzen egon da; ezarritako aurreikuspenen arabera, zerbitzu horiek udal-eskumenekoak dira.



- h) GZLk espresuki aitortzen duela administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioaren beharra, eta hori diseinatzen den gizarte-zerbitzuen sistema integratuari atxikia doa.
- i) Era berean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2.a) artikulua aurreikusten du aldundien xedeetako bat dela “probintziako lurralde osoan udalerraren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”.

AINTZAT HARTU DA. - Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 883/2022 Aginduaren bidez onetsi zen Lurralde Historikoko udalei jakinaraztea abenduaren 26ko 904/2016 erabakia **2023ko abenduaren 31ra luzatzeko proposamena**. 904/2016 Erabakiaren bidez onesten zen gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzea, Arabako Lurralde Historikoko Aldundiak eta udalek kudeatu dituzten baldintzetan, 20.000 biztanletik beherako udalen kasuan, garaian onetsitako baldintza beretan.

AINTZAT HARTU DA. - Beharrezkotzat jotzen dela, adierazitako xedea aintzat hartuz, udal-eskumenekoak diren zerbitzuak ematen jarraitzea eta helburuarekin lankidetzeta-esparruan lan egiten jarraitzea. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroaren Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa bete behar da, hori guztia egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat etorriko den ikuspegi tekniko eta juridikoa eta finantza-nahikotasuna kontuan hartuta.

GERTAERA. - Udalerriko herritarren eskubide subjektiboa bermatu behar dela, Gizarte Zerbitzuen Euskal Herriko Sistemaren prestazio eta zerbitzuetara sarbidea izatekoa; hortaz, Aldundiak eta Udalak eman eta kudeatu dituen baldintzetan guztiz bermatuta geratu behar da eskubide hori.

Eta datu arauemaitetik abiatuta, aipatutako Erabakiko bigarren puntuak ezartzen du horren eraginkortasuna, udalerriz udalerriz, udal-organo eskudunaren onespena izatearen eta gero hori egiaztagiri baten bidez Arabako Foru Aldundiari jakinaraztearen menpe dagoela.

Aiarako Udaleko Udalbatzak, aho batez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 10ek), **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Adieraztea Aiarako Udala ados dagoela Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 883/2022 Erabakiarekin. Horren bidez onesten da gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzea onesteko abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia **2023ko abenduaren 31rarte luzatzea**, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko Udalek jarraitu dituzten baldintza beretan. 883/2022 Erabakiak honako hau dio, hitzez hitz:

“Gizarte Politikak Saila
Espedientea: 92/2022

Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluak abenduaren 28ko 883/2022 Erabakia onetsi du, hitzez hitz honela diona:



“Udaleko gizarte-zerbitzuak ematea aldi baterako mantentzeko Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluaren abendu 904/2016 Erabakiaren seigarren luzapena onestea, Aldundiak kudeatu dituen baldintzetan.

Eskumenen banaketa berriak eta, zehazki, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezarritako lehen edo bigarren mailako arretako zerbitzuak ematearen arteko desberdintasunak, Foru eta tokiko administrazioaren artean modu partekatuan kudeatzen ari diren zerbitzuak berrantolatzen diren bitartean herritarrei gizarte-zerbitzuak bermatzeko borondate irmoaz gain, eragin zuten 2016ko abenduaren 26an Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak hitzarmena onestea, gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzeko, Aldundiak eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako Lurralde Historikoko udalerriek jarraitutako baldintzetan. Hitzarmenak 24 hilabeteko iraupena zuen, hau da, 2018ko abenduaren 26ra arte.

Hitzarmen horren helburua zen Arabako biztanleriak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako prestazio eta zerbitzuetara sarbidea izateko eskubide subjektiboa guztiz bermatuta gera zedila, gehienez 24 hilabeteko epeaz, Erakunde arteko Mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak bakoitzari dagokion eskumen-esparruaren baitan behar bezala emateko beharrezko baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatu arte.

Une horretatik aurrera eskumenen banaketa berritik eratorritako Arabako Lurralde Historikoko zerbitzuen kudeaketa berrantolatu eta formulatzeko lan egiten hasi zen, baita tokiko entitateekin lan egiten ere, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroaren Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa betetze aldera, hori guztia ikuspegi tekniko, juridiko eta finantza-nahikotasunetik abiatuta, egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat etorritz.

2018 ekitaldian zehar Etxeko Laguntza Zerbitzuari zegokion lana amaitu zen. Zerbitzu hori udal-eskumenekoa, Zorroaren Dekretuaren 1.2. fitxari jarraikiz, eta Arabako 20.000 biztanle baino gutxiagoko 50 udalerrik hitzarmena hartu zuten zerbitzu horri eta dagokion prezio publikoari lotutako administrazio-prozeduren garapenerako eskumenak eskuordetzeko eta zerbitzu horren kudeaketa osoa Arabako Foru Aldundiari enkargatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez. Era berean, Etxeko Laguntza zerbitzua emateko ordenantza arautzailea eta horren prezio publikoen aplikazioa arautzeko ordenantza fiskala onetsi zituzten.

Aldeek bere gain hartutako gainerako konpromisoak betetzeke egonda, Arabako Lurralde Batzordeak, 2018ko azaroaren 8an egindako bilkuraren bidez, erabaki zuen Arabako Foru Aldundiari abenduaren 26ko Gobernu Kontseiluaren 904/2016 Erabakia hamazortzi (18) hilabete gehiagoko luzapena eskatzea, hau da, 2020ko ekainaren 26ra arte. Luzapen hori abendu 21eko Gobernu Kontseiluaren 765/018 Erabakiaren bidez onetsi zen.

Emandako luzapenean ezin izan zenez egin beharreko lana bete eta gaur egun horri ekin ezin zaionez, COVID-19ak sortutako larrialdi sanitarioaren ondoriozko egoera konplexua dela eta, Arabako Foru Aldundiak bigarren luzapena egitea proposatu zuen, eta Arabako Lurralde Batzordeak 2020ko apirilaren 16an egindako bilkuran onetsi zuen. Azkenik, bigarren luzapen hori maiatzaren 26ko 222/2020 Erabakiaren bidez onetsi zen.

2020 ekitaldian zehar Eguneko Landa Zentroei zegokien lana amaitu zen, Zorroaren Dekretuaren 1.7.1. fitxari jarraikiz, nahiz eta lan hori abiaraztea 2021 ekitaldi osoan zehar luzatu den. Hala, gainerako konpromisoak betetzeke egonda, abenduaren 29ko Gobernu Kontseiluaren 720/2020 Erabakiaren bidez hirugarren luzapena onetsi zen, 2021eko abenduaren 31rartekoa.



Abenduaren 28ko Gobernu Kontseiluaren 845/2021 Erabakiaren bidez laugarren luzapena onetsi zen, 2022ko ekainaren 30era artekoa, maiatzerako etxebizitza komunitarioei lotutako lanak amaitzeko eta gainerakoak ekainaren 30erako amaitzeko konpromisoarekin.

2021 eta 2022 ekitaldietan zehar gainerako udal-zerbitzuetan lan egiten jarraitu da, eta honako hau egin da: etxebizitza komunitarioetan beharrezko dokumentazio guztia egin da, Instituzioetan konpromiso ekonomikoak erabakitzeko geratu direla, eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzuan sarbideko araudia prestatu da, behin betiko onetsia izatearen zain dagoena. Ekainaren 28ko Batzordearen 396/2022 Erabakiaren bidez bosgarren luzapena onetsi zen. Hala ere, eta aintzat hartuta ezin izan direla egiteke zeuden lanak amaitu, egokitzat jotzen da abenduaren 26ko Gobernu Kontseiluaren 204/2016 Erabakiaren seigarren luzapena izapidetzea, 2023ko abenduaren 31ra artekoa.

Hori dela bide, Gizarte Politiketako diputatuak proposatuta eta alde zurretik gaur egun egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaiduta,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- *Udaleko gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzeko Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluaren abenduko 904/2016 Erabakiaren seigarren luzapena onestea, 2023ko abenduaren 31ra arte, Aldundiak eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako Lurralde Historikoko udalerriek kudeatu dituen baldintzetan.*

Epe horretan, Mapa egiteko sortutako Erakunde arteko Mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak bakoitzari dagokion eskumen-esparruaren baitan behar bezala emateko beharrezko baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, eta horiek adierazitako epean zehar ezarriko dira modu mailakatuan.

Honako hauek dira sartutako gizarte-zerbitzuak:

- 1.3.A fitxa. Gizarte eta hezkuntzako eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuak. Prebentzio komunitarioaren eta bazterketaren arloko programak:

-Landa-eremuan baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak txertatzeko zerbitzuak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, alde batetik, erabiltzaileak zerbitzu horretara bidali ditu, dagokion eskubide subjektiboaren aitortpenarekin, eta, bestalde, zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzua eman du.

- 1.3.B fitxa. Gizarte eta hezkuntzako eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuak. Umeen babeserako arloko programak:

- Honako hauetan espezializatutako programa: familiako esku-hartzea, arreta psikologiko eta psikopedagogikoa eta izaera psikosozialeko azterketa eta/edo balorazio txostenak egitea. Hori guztia babesik gabe geratzeko arrisku arin edo neurrizko egoeran dauden adingabeei zuzenduta dago.



Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, alde batetik, udal-eskumenekoak diren babesik gabe geratzeko arrisku arin eta neurrizko egoeran dauden aipatutako adingabeak programa/zerbitzuetara bidali ditu, eta, bestalde, zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzua eman du.

- 1.5 fitxa. Gizarte Zerbitzuen arloan partaidetza eta Gizarte-inklusioa sustatzea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prebentzio komunitarioko zerbitzua du, eta hiru teknikari ditu banatuta Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan. Zeregina esku-hartze unibertsal, apropos eta selektiboaren arloan irizpide eta esku-hartzeak homogeneizatzea, udal-alorreko prebentzio unibertsala izanda.

- 1.9.1.2 fitxa. Ostatu/abegi-pisuak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, alde batetik, aipatutako zerbitzua ez duten landa-eremuetan erabiltzaileak zerbitzura bidali ditu, eta, bestalde, biktima diren emakumeen arretarako abegi-pisuen eskuragarritasuna hartu du bere gain.

- 1.9.3 eta 1.9.4 fitxak. Adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuak:

- Hitzarmenak egitea udalekin etxebizitza komunitarioak kudeatu eta mantentzeko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erabiltzaileak aipatutako zerbitzura bidali ditu, horrek dakarren eskubide subjektiboaren aitopenearekin; bestalde, udalek zerbitzua emateaz arduratu dira, Arabako Foru Aldundiaren finantzaketarekin.

Bigarrena.- Erabakiko lehenengo atalaren eraginkortasuna, udalerriz udalerrri, udal-organo eskudunaren onespena izatearen eta gero hori egiaztagiri baten bidez Arabako Foru Aldundiari jakinaraztearen menpe egongo da.

Hirugarrena. Erabaki hau lehenengo atalean adierazitako Udalei helaraztea, kasua denean, bigarren atalean xedatutakoa 2023ko martxoaren 31 baino lehen har dezaten.

Laugarrena. Gizarte Politiketako Foru diputatuari eskumenak ematea erabakian xedatutakoa garatu eta kudeatzeko.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, uztailearen 13ko 29/98 legearen 44.1., 8.1. eta 46.1. artikuluei jarraikiz.”

Hori jakinarazten zaizue, beharrezko ondoreak izan ditzan, Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 30ean.

Emilio Sola Ballojera
Gizarte Politiken foru diputatua
Diputado Foral de Políticas Sociales”.



Bigarrena.- Alkatetzari eskumenak ematea erabakian xedatutakoa garatu eta kudeatzeko.

Hirugarrena. Erabakia Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, Diputatuen Kontseiluaren aipatutako erabakiaren bigarren puntuari aurreikusitakoa betetzeko.”

3.- EH-Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, euskararen judizializazioari buruzkoa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko azken boladan epaiak egon direla kontratazioetarako edo administrazioetarako lanpostuetarako euskararen eskakizunaren aurka, eta asko kezkatzen du, gaineratu du. Hori dela eta, Udalak euskararen erabilera bermatu dezala eskatzen dute. Eta honako mozioa aurkeztu du:

“MOCIÓN DE EH BILDU ANTE EL ATAQUE JUDICIAL AL EUSKERA

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) ha vuelto a dictar una sentencia en contra del euskera en este 2023. En concreto, los juzgados a instancias de CCOO, han revocado la decisión del Ayuntamiento de exigir un nivel mínimo de euskera en los servicios subcontratados. Han decidido que el euskera no puede establecerse como requisito en los concursos para contratar una empresa que se haga cargo de los servicios culturales del municipio.

Esta no es la primera sentencia de este tipo dictada por el TSJPV. Anteriormente, otras iniciativas de las administraciones municipales para fomentar el euskera han sido anuladas por los juzgados, entre otras; la ordenanza de subvenciones para actividades culturales dirigidas a niños y niñas del Ayuntamiento de Lasarte Oria en 2018, los perfiles lingüísticos establecidos en 2021 en Atrarrabia de que el conocimiento del euskera sea un mérito en todos los puestos de trabajo del equipo orgánico, la decisión sobre el perfil lingüístico de un trabajador en Ayuntamiento de Llodio en 2022, etc.

Ha habido sentencias y decisiones que hay que entender en el marco de la judicialización de la política lingüística. De hecho, la lectura de las consecuencias jurídicas de la oficialidad actualmente establecida se está haciendo aún más restrictiva; a través de las sentencias y de jurisprudencia. Por esta vía, quieren recortar aún más los derechos de vascas y vascos, haciendo una lectura más reducida de la oficialidad. La ciudadanía tiene derecho a recibir los servicios públicos municipales en euskera y a las instituciones públicas, todas, incluso las judiciales, les corresponde garantizar este derecho.

Esta sentencia no sólo es contraria al euskera; también es contraria a la normativa de la CAV y a la autonomía municipal. Por un lado, vulnera la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi. El Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, por el que se desarrolla la ley sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, deja muy claras las vías de priorización del euskera. Además, en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, la Ley de Entidades Locales define claramente las competencias de los ayuntamientos en política lingüística y el decreto de 2019 también impone a los ayuntamientos la necesidad de priorizar el euskera para dar pasos en la normalización lingüística.



Teniendo en cuenta lo anterior, el grupo municipal de EH Bildu presenta la siguiente moción para su debate y aprobación en Pleno:

- 1. El Ayuntamiento de Ayala denuncia enérgicamente la judicialización de la política lingüística emprendida por los Juzgados y las sentencias que están dictando en contra de la normalización del euskera y de los derechos lingüísticos de las personas euskaldunas.*
- 2. El Ayuntamiento de Ayala insta a las administraciones, juzgados y agentes políticos, sindicales y sociales del País Vasco a que den pasos para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y apuesten por la promoción del euskera.*
- 3. El Ayuntamiento de Ayala en cumplimiento de la legislación vigente, se compromete a:*
 - Garantizar el derecho a que la primera palabra de la ciudadanía en sus relaciones con el ayuntamiento sea en euskera*
 - Ejecución de un plan para garantizar el pleno funcionamiento municipal en las dos lenguas oficiales de la CAPV.*

EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN EH BILDUREN MOZIOA

2023 urte hasi berritan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskararen aurkako epai bat eman du berriz. Zehazki, Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu dute CCOOen eskariz, eta azpikontrataturako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka agertu dira epaileak. Erabaki dute euskara ezin dela langileentzako betekizun gisa ezarri udalerrri horretako kultur zerbitzuez arduratzeko enpresa bat kontratatatzeko lehiaketan.

Hau ez da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko tankera honetako lehen epaia. Aurrez ere, euskara sustatzeko udal administrazioen ekimenak baliogabetu izan dituzte epaitegiek, besteak beste, 2018an Lasarte-Oriako Udalaren haurrei zuzendutako ekintza kulturalak diruz laguntzeko ordenantza, 2021ean Iruneko Udalaren udaltzaingo prozesuan ezarritako hizkuntza eskakizunak, Atarrabiako Udalaren erabakia lantalde organikoko lanpostu guztietan euskara jakitea meritua izateko erabakia, 2022an Laudioko Udalaren langile baten hizkuntza eskakizunaren erabakia,...

Euskararen aurkako epaiak izan dira, eta hizkuntza-politikaren judizializazioaren baitan ulertu beharreko erabakiak. Izan ere, egun ezarrita dagoen ofizialtasunaren, eta ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztagoa egiten ari dira epaien zein jurisprudentziaren bidez. Bide honetatik, euskaldunon eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte ofizialtasunaren irakurketa murriztago baten bidez. Herritarrek udal zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publikoei, guztiei, baita judizialei ere, eskubide horren bermatzaile izatea dagokie.



Baina epai hau ez da euskararen aurkakoa soilik: EAEko araudiaren eta udal autonomiaren aurkakoa ere bada. Batetik, 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundeen Legea urratzen du. Lege hark udaloi hizkuntza politikan erabakiak hartzeko eskumenak ematen dizkigu, eta legea garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, oso argi uzten ditu euskara lehenesteko bideak, arrazoi askorengatik. Bada, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Tokiko Erakundeen Legeak hizkuntza politikan udalen eskumenak argi zehazten ditu, eta 2019ko dekretuak ere udalei euskara lehenesteko beharra ezartzen die, hizkuntzaren normalizazioan urratsak emateko.

Aurreko guztia kontua Hori dela eta, hurrengo proposatzen dugu:

Aurreko guztia kontuan izanda, EH Bildu udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkurak eztabaidatu eta onar dezan:

1. Aiarako udalak gogor salatzen dituzte epaitegiek abiatu duten hizkuntz politikaren judizializazioa, eta epaitegi horiek euskararen normalizazioaren zein euskaldunon hizkuntz eskubideen aurka ematen ari diren epaiak.

2. Aiarako udalak Euskal Herriko administrazioei, epaitegiei zein eragile politiko, sindikal eta sozialei eskatzen die herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko urratsak eman ditzatela eta euskararen sustapenaren alde egin dezatela.

3. Aiarako udalak, legedia betez, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Harremanetan, herritarrei lehen hitza euskaraz egiteko eskubidea bermatzea.*
- Udal funtzionamendu osoa EAE-ko bi hizkuntza ofizialeetan bermatzeko urratsak emateko plana gauzatuko du”.*

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko bere taldea ados dagoelako mozioarekin, eta epaitutako kasuak eta horien ondorioak onartezinak direla, baina bere taldea abstenituko dela, mozioek eta paperek guztia jasaten dutelako, eta duela gutxi Kuadrillan lanpostu horiei buruz eta horiei eskatu ahal zaien euskarari buruz botatu delako, eta EH BILDU eskakizunean abstenitu da, nahiz eta lanpostu horiek eragina duten Aiarako Udalean. Beraz, nahiz eta mozioaren alde egon, ez zaio gustatzen euskararen defentsa paperean bakarrik egitea.

Ez da iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 3 EH BILDU
AURKAKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Beraz, gehiengo osoak eztabaidatutako mozioa ukatu du.

4.- EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, euskararen judizializazioari buruzkoa.



Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko otsailaren 14ko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko kasu honetan taldearen argudioa aurreko puntuarenaren antzekoa dela, baina kasu honetan aurka bozkatuko dutela, EAJk aukera duelako Kuadrillan egonkortzen ari ziren lanpostuetan euskara-profila bermatzeko; beraz, ez zaie logikoa iruditzen euskararen erabilera eta normalizazioa eskatzea mozio baten bidez eta gero Kuadrillara joatea eta lanpostuetan profilak ez eskatzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza galdetzeko ea zer esan nahi duen honako honek: ***“hizkuntza-gatazka artifizialetatik kanpo bizi nahi duena,”***

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du adierazi nahi dena dela Justiziako Administrazioa gatazka artifizialak sortzen ari dela, eta gizartea horietatik aldendu nahi dela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko mozioan adierazten dela ez dela inor atzean utzi nahi hizkuntza dela eta, baina hori ez da betetzen, dio, euskaldunak atzean uzten ari direlako, Araban ez direlako haien hizkuntza-eskubideak bermatzen. Gaineratu du Arabako instituzio askotan eskubideak gutxiesten ari direla, horietara deitzean ez zaiela euskaraz arreta ematen. Beraz, egoera ez da zoriontzekoa, mozioan jasotzen den bezala, gauza asko dagoelako egiteke; leku askotan lehenengo hitza ez da euskaraz, eta ez dira euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen, beraz, zentzu horretan badago diskriminazioa eta errealitatea hori ez da aztertzen ari.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza alkate jaunak esandako hitz batzuk gogorarazteko, Aiaraldea aldizkarian oso politikak geratu zirenak, baina errealitatean ikusten ez direnak. Honako hau esan zuen, gaineratu du: "Aiaran zerbaitez harro bagaude, gure hizkuntza propioaz da: euskaraz. Komunikazio tresna baliotsu eta paregabea, egunerokotasunean auzokideekin harremanetan jartzeko, gestioak egiteko eta, euskal kultura bultzatzeko erabiltzen duguna. Gure herrian euskaraz bizitzen jarraituko dugu, hori baita gure bizitzeko modua, urteko 365 egunetan".

Ez da iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV

AURKAKO BOTOAK: 4 (3 EH BILDU, 1 AIARA BATUZ)

Hori dela bide,

IKUSI DA. - EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, euskararen judizializazioari buruzkoa.

IKUSI DA. - 2023ko otsailaren 14ko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordearen aldeko irizpena.



Udalbatzak, zinegotzien gehiengo osoarekin, honako ERABAKIA hartu du:

LEHENENGOA.- - EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa onestea, euskararen judicializazioari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

“Moción con motivo de la sistemática judicialización del euskera.

Justificación y antecedentes:

El proceso de normalización y revitalización del uso del euskera se ha asentado sobre tres pilares fundamentales: la existencia de una legislación favorable, la puesta en marcha de una política lingüística eficaz y, por encima de todo, la adhesión inquebrantable de la inmensa mayoría de la sociedad vasca.

Cabe destacar que este proceso de revitalización del euskera se está desarrollando de manera modélica y está siendo impulsado por una sociedad plural que desea vivir al margen de conflictos lingüísticos artificiales y que a lo largo de los años ha demostrado su madurez y su apuesta inequívoca por la igualdad, no solo jurídica sino también social, de nuestras dos lenguas oficiales.

La Ley de Normalización del Uso del Euskera recoge bien a las claras que los derechos lingüísticos corresponden siempre a la ciudadanía; y la obligación de cumplirlos y velar por que se cumplan, a los organismos que integran el sector público. Ésa es la razón por la cual, cuando a la ciudadanía se le pregunta en la última encuesta publicada por el Gabinete de Prospección Sociológica sobre si consideran que el conocimiento del euskera debería ser obligatorio para trabajar en la administración pública, el 75,2% de los encuestados contesta afirmativamente; porcentaje que se eleva hasta el 95% cuando es consultada sobre si la Administración debería atender siempre en el idioma que elija dicha ciudadanía.

En este contexto de normalización gradual, prudente y pacífica, en el que se pretende no dejar atrás a nadie por razón de la lengua, la judicialización de algunas de las resoluciones de las administraciones públicas en materia de normalización lingüística genera incertidumbre ante unos derechos lingüísticos de la ciudadanía que de manera inequívoca las administraciones públicas han de garantizar.

Por todo ello, el grupo municipal de EAJ-PNV presenta la siguiente moción para su debate y aprobación por el Pleno del Ayuntamiento de Ayala.

Moción:

1.- El Ayuntamiento de Ayala insta a todas las administraciones públicas en general, y alavesas en particular, a que sigan tomando las medidas necesarias para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

2.- El Ayuntamiento de Ayala animan a todas las administraciones Públicas en general, y a las alavesas en particular, a que continúen desarrollando los planes de euskera como los han desarrollado a lo largo de los últimos 25 años buscando la adhesión de la ciudadanía y el consenso político, teniendo en cuenta la realidad sociolingüística de su ámbito de actuación y la



aplicación del criterio de progresividad, ya que este es el camino a seguir para la consecución de la normalización del uso de euskera.

3.- El Ayuntamiento de Ayala quiere felicitar a las administraciones públicas vascas en general, a las administraciones públicas alavesas en particular, por toda la labor y esfuerzo que han realizado en la euskaldunización de sus empleados públicos y en el fomento del uso del euskera con el objetivo de modernizar la administración y hacerla más cercana a la ciudadanía. Agradecer también a todos los empleados públicos por el esfuerzo que han realizado estos últimos años para ofrecer a la ciudadanía un servicio de calidad en las dos lenguas oficiales.

4.- El Ayuntamiento de Ayala, en cumplimiento de la legislación vigente, se compromete a:

- Garantizar el derecho de la ciudadanía a comunicarse en euskera en sus relaciones con el ayuntamiento de Ayala, continuando con la implementación de las necesarias medidas.*

Mozioa, euskararen judizializaio sistematikoa dela-eta.

Arrazoia eta aurrekariak:

Euskararen erabilera normalizatzeko eta biziberritzeko prozesua hir zutabe nagusitan oinarritu da: aldeko legeria izatea, hizkuntza-politika eraginkorra abian jartzea eta, ororen gainetik, Euskal gizartearen gehiengo zabalaren atxikimendu hautsezina.

Azpinarratzekoa da euskara biziberritzeko prozesu hori modu eredu-garrian garatzen ari dela, gizarte anitz batek bultzatua; gizarte bat, hizkuntza-gatazka artifizialetatik kanpo bizi nahi duena, eta urteetan zehar heldutasuna eta gure bi hizkuntza ofizialen berdintasun juridikoaren zein sozialaren aldeko eta zalantzarik gabeko apustua erakutsi dituen.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak argi eta garbi jasotezen du hizkuntza-eskubideak bet herritarrei daboziela, eta eskubide horiek betetzeko eta betetzen direla zaintzeko betebeharrak sektore publikoa osatezen duten erakundeei dagokiela. Horrela, Prospekzio Soziologikoen Kabietaek argitaratutako azken inkestan herritarrei galdetu zaienean ea euskararen ezagutza nahitaezkoa izan beharko litzatekeen Administrazio publikoan la egiteko, inkestatuen %75,2 baietz erantzun dute; ehuneko hori % 95eraino igo da galdetu zaienean ea Administrazioak beti herritarrek aukeratzen duten hizkuntzan arreta eman behar ote duen.

Normalkuntza mailakatu, zuhur eta baketsua eraikitzen saiatu gara, hizkuntza dela-eta inor atzean utzi nahi ez duena; testuinguru horretan, herri-administrazioek hizkuntza-normalizazioaren arloan emandako zenbait ebaspenen judizializazioak ziurgabetasuna sortzen due herri-administrazioek zalantzarik gabe bermatu behar dituzten herritarren hizkuntza-eskubideei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNV-ko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, udaleko Osoko Bilturak eztabaidatu eta onar dezarn.

Mozioa:



1.- Aiarako osoko bilkurak herri-administraxio guztiei, oro har, eta bereziki Arabakoei, eskatzen diete herritarren hizkunta-eskubideak bermatzeko beharrezko neurriak hartzen jarrai dezatela.

2.- Aiarako udalak, oro har, Administrazio publiko guzitei eta, bereziki Arabakoei dei egiten diete euskara planak garatzen jarrai dezaten, azken 25 urteetan egin duten bezala, herritarren atxikiemdua eta adostasun politiko bilatuz, eta beren jarduera eremuaren errealitate soziolinguistikoa zen progresibitate irizpidearen aplikazioa kontuan hartuta, hor baita euskararen erabileraren normalizazioa lortzeko jarraitu beharreko bidea.

3.- Aiarako udalak zorional eman Nahi dizkieta EAeko herri-administrazioe, eta, bereziki, Arabako herri-administrazioei, beren langile publikoak euskalduntzeko eta euskararen erabilera sustatzeko egin duten lan eta ahalegin guztierengatik, administrazioa modernizatzeko eta herritarrengandik hurbilago jartzeko helburuarekin. Eskerrak eman Nahi dizkie, halaber, langile publiko gustiei, asken urteotan herritarrei bi hizkuntza ofizialetan kalitatezko zerbitzua eskaintzeko egin duten ahaleginagatik.

4.- Airako udalak, inderran daoben legeria betez, honako konpromiso hau hartze dute:

- *Herritarrek Aiarako udalerriko harremanetan euskaraz komunikatzeko dutne eskubidea bermatzeko konpromisoa, horreterako beharrezkoa diren neurriak ezarten jarraituz.”*

5.- Onestea, bidezkoa bada, lerroa aitortzeko eta Aiara eta Amurrio udalerrien (biak Arabako Lurralde Historikokoak) arteko muga zehazten duten mugarri komunak kokatzeko 2023ko urtarrilaren 11n egindako eragiketaren akta. Akta hori Arabako Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Ataleko ordezkariak eta bi udalek horretarako izendatutako Lurralde Mugaketako Batzordeak sinatu zuten adostasunez.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko otsailaren 14ko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak Amurrioko eta Aiarako udaletako Lurralde Mugaketako Batzordeak adostutako akta helazari dio Udalari, Arabako Lurralde Historikoari dagozkion Amurrio eta Aiarako udalerrien arteko muga zehazten duten mugako lerroa aitortzeko eta mugarri komunak kokatzeko egindako eragiketari buruzkoa, Udalbatzak onetsi dezan, egoki baderitzo, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 39. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.



IKUSI DA.- Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 39. artikulua honako hau ezartzen du:

39. artikulua. Mugaketa behin-behinean onartzea, alderdiak ados egonez gero

1. Mugaketa eragiketei buruzko akta, agiri osagarri guztiekin, ukitutako toki korporazioetako osoko bilkuren pean jarri beharko da, onartua izan dadin eta Foru Aldundira bidal dadin, akta sinatu eta bi hilabeteko epean.

2. Erabaki guztiak aktan proposatutako mugaketaren aldekoak badira edo udalek ez badute beren desadostasuna adierazten bi hilabeteko epean, foru diputatu eskudunak behin-behinean onartuko du mugaketa.

Eta 2023ko urtarrilaren 11n akta sinatu zen, eta osoko bilkuran onesteko epea 2023ko martxoaren 11n amaituko da; ondoren, osoko bilkuraren erabakia Foru Aldundiari igorriko zaio.

IKUSI DA.- Udal idazkari kontu-hartzailearen txostena, 2023ko otsailaren 8koa, hitzez hitz honako hau dioena:

“IDAZKARIAREN TXOSTENA

Esp.: 2018/1/S845 Olabezar kontzejuko Aiara eta Amurrio arteko mugaketa

Esp.: 2018/4/S845 Luiaondo kontzejuko Aiara eta Amurrio udalerriek mugaketa

Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 18ko 128/2018 Errege Dekretuko 3.3 c) artikuluan ezarritako betez, hurrengo TXOSTEN hau egin dut,

AURREKARIAK

Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak Amurrioko eta Aiarako udaletako Lurralde Mugaketako Batzordeek adostutako akta helazari dio Udalari, Arabako Lurralde Historikoari dagozkion Amurrio eta Aiarako udalerrien arteko muga zehazten duten mugako lerroa aitortzeko eta mugarri komunak kokatzeko egindako eragiketari buruzkoa, Udalbatzak onetsi dezan, egoki baderitza, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 39. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

OINARRI JURIDIKOAK

- Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 39. artikulua eta hurrengoak.

- Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Biztanleriari eta Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 17. artikulua eta hurrengoak.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.b) eta 47.2.c) artikulua.

- Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikulua.

LEHENENGOA.- Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 39. artikulua honako hau ezartzen du:

39. artikulua. Mugaketa behin-behinean onartzea, alderdiak ados egonez gero

1. Mugaketa eragiketei buruzko akta, agiri osagarri guztiekin, ukitutako toki korporazioetako osoko bilkuren pean jarri beharko da, onartua izan dadin eta Foru Aldundira bidal dadin, akta sinatu eta bi hilabeteko epean.

2. Erabaki guztiak aktan proposatutako mugaketaren aldekoak badira edo udalek ez badute beren desadostasuna adierazten bi hilabeteko epean, foru diputatu eskudunak behin-behinean onartuko du mugaketa.

2023ko urtarrilaren 11n akta sinatu zen, eta osoko bilkuran onesteko epea 2023ko martxoaren 11n amaituko da; ondoren, osoko bilkuraren erabakia Foru Aldundiari igorriko zaio.

BIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2b) artikulua honako hau ezartzen du:

“2.- Hauek dira, nolana ere, udaletako osoko bilkurari, eta auzotarren batzarrari, kontzeju irekiaren erregimenean, dagozkion eskumenak:

(...)

b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; **udal-mugartea aldatzea**; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea;

I.F.K. C.I.F. P0101100F



udalerriburua aldatzea eta udalerraren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarrria onartzea edo aldatzea.

(...)"

Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 47.2.c) artikulua honako hau dio:

"2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:

(...)

c) Udal-mugartearen mugak onartzeko.

(...)"

*Aurrekoagatik guztiagatik, sinatzen duenak txostena egiten du, Aiarako eta Amurrioko udaletako batzordeen arteko adostasunez sinatutako lerroa aitortzeko akta onesteko hartzen den erabakia, bidezkoa bada, **Udalbatza osatzen duten legezko kide-kopuruaren gehiengo osoz onetsi beharko da. (6 zinegotzik)***

Horregatik guztiagatik, Udalbatzari honako ERABAKI hau hartzea proposatzen diot:

LEHENENGOA.- *Lerroa aitortzeko eta Aiara eta Amurrio udalerrien (biak Arabako Lurralde Historikokoak) arteko muga zehazten duten mugarri komunak kokatzeko 2023ko urtarrilaren 11n egindako eragiketaren akta onestea. kta hori Arabako Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Ataleko ordezkariak eta bi udalek horretarako izendatutako Lurralde Mugaketako Batzordeak sinatu zuten, adostasunez.*

BIGARRENA.- *Erabakiaren berri ematea Batzordeko kideei, Amurrioko Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Atalari.*

Hori da jakinarazi nahi dudana, zuzenbidean oinarritutako irizpide hoberik ezean, Arespalditzan, sinadura-datan,

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA"

AINTZAT HARTU DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Legearen 22.2b) eta 47.2c) artikuluetan ezarritakoa,

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- *Lerroa aitortzeko eta Aiara eta Amurrio udalerrien (biak Arabako Lurralde Historikokoak) arteko muga zehazten duten mugarri komunak kokatzeko 2023ko urtarrilaren 11n egindako eragiketaren akta onestea. Akta hori Arabako Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Ataleko ordezkariak eta bi udalek horretarako izendatutako Lurralde Mugaketako Batzordeak sinatu zuten, adostasunez.*

BIGARRENA.- *Erabakiaren berri ematea Batzordeko kideei, Amurrioko Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Atalari.*

6.- Gaur egun indarrean dagoen udal-eraikinak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea, bidezkoa bada.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko otsailaren 14ko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hartu du hitza, eta esan du bere taldea abstenitu egingo dela honako hau irakurri du. Hitzez hitz transkribatzen da:

"Ezin dugu zabaltze horren aurka bozkatu, baina gure desadostasuna adierazi nahi dugu honako puntu hauetan:

• *Garbiketa-kontratua berritu gabe dago, eta luzatzeko epe guztiak agortu dira. Nola iritsi gara egoera horretara? Ez zaigu iruditzen konfinamendua justifikazioa denik, administrazio-lana*



etxetik egiten jarraitu zelako, inolako etenik gabe. Nork du lan hori egin ez izanaren ardura?
Gobernu-taldeak.

• *EAJk lizitazio berrirako agiriak ekarri zituenean, berandu egin zuen eta baldintzen ekarpenak jasotzeko asmorik gabe. Zergatik ez zitzaion berrikuntza horri garrantzirik eman, udalean egiten diren lan guztien oinarria garbiketa bada, eta hori gabe ezin badira egin?*

• *Orain arte garbiketa-lanak egin dituen enpresa lizitaziora ez aurkezteak haserre edo lizitazioaren baldintza eskasei erantzuten al die? Kontuan izan behar da langileen soldata-hobekuntzen mende ere badaudela baldintzak.*

Gaineratu du haiek uste dutela garbiketako langileek egiten duten lana gehiago baloratu behar dela, eta kontuan izan behar dela lizitazioak asko estutzen badira horrek eragina duela langileengan eta haien lan-baldintzetan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta galdetu du ea EH BILDUK kalkuluak egin dituen, aurreko lizitazioari dagokionez, kontratuaren zenbatekoa handitzeak eragin duenari buruz, eta galdetu du ea gogoeta egin den zenbakiak ikusita.

EGINBIDEA.- Jasota uzteko, 19:20ean, Susana Martín Benavides andrea Osoko Bilkuren Aretoan sartu dela eta une honetan bilerara batu dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du kontratuaren lizitaziora ateratzeko erabili diren zenbatekoek aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko lan-baldintzak errespetatzen dituztela.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotz jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta esan du langileek hezkuntzako hitzarmenarekin parekatu nahi dutela. Udalak agiritan aplikatu beharreko hitzarmena jaso lezake, eta langileen nahi hori ez da errespetatu. Kontratuaren prezioak ezartzen direnean, kontuan izan beharke litzateke prezio baxuak langileen lan-baldintzen etorkizuneko hobekuntzen kalterako direla. Horrez gain, gaineratu du deigarria dela egungo enpresa aurkeztu ez izana, esguru asko prezioak oso baxuak direlako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta esan du, egungo zerbitzu-emaileak adierazi duenez, ez zaio lizitazioa interesatzen, orain multinazionala delako, eta horrelako zerbitzuak ez dira bere negozio-planetan sartzen. Gainera, kontratu honek aurkezten duen lan-absentismo handia eta zentroen sakabanatzea azaldu dute. Esan du ez dituela arrazoiak baloratuko. Gainera, zortzi pertsona aurkeztu dira lizitaziora, eta badirudi horiek ados daudela zenbakiekin. Lizitazioa atera den prezioarekin ziurtatu dena da kostuak langile guztien lan-kostuak, beharrezko produktuak eta abar estaltzen dituela.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 8 (7 EAJ-PNV eta 1 AIARA BATUZ).
ABSTENTZIOAK: 3 EH BILDU

Hori dela bide,



2016ko uztailaren 15eko Alkatetzaren 267/16 Dekretuaren bidez, Udalbatzak eskuordetuta, Ayala-Aiara udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzu-kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatu zitzaion COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari, urtean 120.453,90 euroko zenbatekoagatik (BEZa barne). Kontratua gauzatzeko epea lau urtekoa da, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, aldeek hala adosten badute.

AINTZAT HARTU DA.- 2019ko otsailaren 21eko osoko bilkuran, COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari adjudikatutako AYALA-AIARA UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ISS FACILITY SERVICES SA enpresari lagatzea baimendu zen.

AINTZAT HARTU DA.- 2020an, ISS FACILITY SERVICES SA enpresak udal honi jakinarazi zion ez zuela kontratuaren aipatutako luzapena baliatu nahi; baina Udalak, herrialdea zegoen osasun-alarmaren egoeragatik, hau erabaki zuen 2020ko ekainaren 15ean:

“Gaur egun Udalak ISS FACILITY SERVICES SA enpresarekin sinatuta duen **AYALA-AIARA UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZU ADJUDIKATZEKO KONTRATUA** luzatzea, kontratu berria gauzatzen hasi arte. **Hori behar bezala jakinaraziko zaie, eta, nolahi ere, bederatzi hilabetez gehienez, epemugatik zenbatzen hasita**, eta kontratuaren gainerako baldintzak egungo baldintza berberetan mantenduko dira.”

Eta akordioak ezarritako bederatzi hilabeteak igaro ondoren, Udalak ez zuen zerbitzua lizitaziora atara, eta enpresak zerbitzua ematen jarraitu zuen adjudikazioaren ondoriozko baldintza ekonomiko berberetan, alde batera utzi gabe osasun-alarmaren egoerak iraun zuen urteetan izandako aldaketak, errefortzuengatik edo gertatutako gainerako gorabeherengatik; eta 2022ko azaroan erabakitako aldaketa, kontsultategia kontratuaren xedetik kanpo uzteko.

AINTZAT HARTU DA.- Enpresak konpromisoa hartu duela udalarekin zerbitzua ematen jarraitzeko zerbitzua berriro adjudikatu arte. Hala ere, zerbitzua ez luzatzeko nahia adierazi zuenetik igaro diren urteak kontuan hartuta, eta luzatu izan balitz ere, luzapenak 2022ko irailean amaitu ziratekeen, eta eskulanak eta materialek izan duten gorakada handiaren ondorioz, enpresak % 18 inguruko (% 18,81) kontratu-igoera eskatu du zerbitzua adjudikatu arteko hilabeteetan.

AINTZAT HARTU DA.- Abenduan udal-zerbitzu berri bat jarri da martxan, Gaztelekua, Luiaondoko lokal batean, Eskola Zaharren eraikinean, eta 15 egunean behin garbitu behar da.

Eta garbiketa-zerbitzu berri horri dagokion hileko aurrekontua 108,25 eurokoa da, gehi dagokion BEZa, hau da, jatorrizko kontratuko zenbatekoaren % 1,30.

IKUSI DA.- Udaleko idazkari kontu-hartzaileak 2023ko otsailaren 9an emandako aldeko txostena. **IKUSI DA.-** Sektore Publikoko. Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintza Errege Dekretuko 107.1 c) artikulua.

IKUSI DIRA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean oinarrituta Udalbatzari ematen zaizkion eskumenak, kontratu hau arautzen duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeari dagokionez.

Alkate-udalburu honek hau **EBATZI DU**:

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Lehenengoa.- Ayala-Aiara udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea. Kontratu hori COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari adjudikatu zitzaion 2016ko uztailaren 15ean, eta ISS FACILITY SERVICES SA enpresari laga zitzaion 2019ko otsailaren 21eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Kontratuaren prezio osoa % 18,81 handitzeagatik; beraz, garbitu beharreko eraikin guztien hileko zenbateko berria 8.479,71 euro izango da, eta ez 7137 euro, gehi dagokion BEZa; eta kontratuaren xedea handitzeagatik, garbitu beharreko lokalen artean Gaztelekua sartu beharko litzatekeelako (Luiaondoko eskola zaharretan dago), horrek kontratuaren prezioa hilean 108,25 igotzea ekarriko du, gehi dagokion BEZa.

Bigarrena.- Kontratuaren aldaketaren indarraldia edo iraupena otsailetik kontratu berri bat adjudikatu artekoa izango da, eta kontratu nagusiari gehitu beharreko eranskina sinatuz burutuko da.

Hirugarrena.- Alkate-udalburuari aldaketa gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko eskumena ematea.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea ISS FACILITY SERVICES SA enpresari, eta jakinaraztea erabaki honen aurrean berraztertze errekurtsoa aurkez dezakeela Udalean, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

7.- Onestea, bidezkoa bada, 2024-2025 Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Programan aurkeztuko diren eskabideak.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko otsailaren 14ko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza puntu honi buruz 2024-25 Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Programan aurkezteko balizko beste proiektu bat baloratzea nahi dutela azaltzeko, Ikastolako birgaitze-obrari dagokionez, eraikinak birmoldaketa behar baitu, jantokitik kanpo ateratzeko eta espazio hori beste premia batzuetarako erabiltzeko, eta jantokia zerbitzu hobea emateko espazio zabalagoa izan dadin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Foru Planaren araudiaren arabera, Aiarako ikastolan beste foru-plan bat dugula, eta ikastolan foru-plan bat badago, hurrengo 15 urteetan ezin dela eraikin bera beste foru-plan batean sartu.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza gai hori dagokion informazio-batzordean ezatabaidatzen dela esateko, udaletxeko esku-hartzea prestatzen ari dira, memoria bat idazten ari dira, eta elkarriketak izaten ari dira Foru Planarekin eta Ondarearekin, eta, garatuago dagoenean, batzorde batera eramango da, azter eta eztabaida dadin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriro eta esan du eraikin bat dela, Udalarena, denbora asko daramana erabilerarik gabe, barrutik oso hondatuta dagoela, eta edozein egunetan atsekabe bat egongo dela; bere ustez, Udalak birgaitzearen aldeko apustua egin behar du, eta, horrela, kultura-ondarearen kontserbazioa ere sustatzen da.



Concejala, D^a Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta galdetu du berogailuan Foru Planaren laguntzaz obra bat egiten denean, Ikastolan adibidez, eta instalazio horri buruz berriro eskatu nahi da, ea ezin den egin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Foru Plana arautzen duen foru-araua bidaliko dietela, dauden mugak ikusi ahal izan ditzaten.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta esan du betiko gauza bera gertatzen zaiela, ezin dituzte gauzak osoko bilkuran eztabaidatu, baina ez dute denborarik batzordeetan aurkezteko; izan ere, gobernu-taldeak gauzak aurkezten dituenean, jada ez dago beste iradokizun batzuk aurkezteko aukerarik. Hori dela eta, proposamen hau aurkeztu dute, hurrengo batzorderako aztertzen joan dadin.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela eta,

IKUSI DA.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2024-2025 aldian laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen urtarilaren 31ko Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2023 Foru Dekretua.

IKUSI DA.- 2023ko otsailaren 14ko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2024-2025 programan honako obra hau sartzeko eskatzea:

- **Arespalditzako pista estalia ixteko obra.**

Bigarrena.- Udalak bere gain hartuko ditu obren finantziario osoa eta dagozkion ordainsariak. Halaber, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Programa arautzen duen Araudian aurreikusitako baldintza guztiak beteko dira.”

8.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak Aiarako Kuadrillari “Sindikatu Zaharra” izeneko eraikina lagatzeko adostasuna.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta esan du hori aspaldi hitz egin zela batzorde batean, baina kuadrilak akordioa sinatu behar duela, eraikina birgaitzeko laguntzak eskatuko dituelako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta esan du proposamena begiratu dutela eta uste dutela horri buruzko informazio gehiago behar dutela; izan ere, ez dago oso argi zein zerbitzutarako den, ez dakite zer plangintza dagoen horren inguruan, ezta eraikin horretan dauden udal-zerbitzuekin zer gertatuko den ere. Kuadrilaren beharren



arabera, eraikinaren erabilera hobeto antolatu beharko litzatekeela uste dute, eta akordio honetan inprobisazio handia dagoela uste dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak erantzun du bere garaian Zaraobe Garaiko eraikina laga zela, baina errepide sailak ez zuela obrarik egiten uzten. Kuadrilaren osoko bilkura batean kuadrilaren egoitza Aiara izango zela bozkatu zen, eta, beraz, ekaineko edo uztaileko Batzorde batean sindikatuaren eraikina lagatzeko gaia landu zen. Beraz, ez dago inprobisaziorik, aspalditik ari dira gai hori eztabaidatzen eta aztertzen. Obra egiten denerako, urtebete edo bi urte barru izango denez, Udalak nahikoa denbora izango du eraikin horretan dauden zerbitzuak birkokatzeke, eta hori Udalak landuko du, eta denbora nahikoarekin adostuko da, ez da zerbitzurik geratuko kokapenik gabe.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 8 (7 EAJ-PNV eta 1 AIARA BATUZ).
ABSTENZTIOAK: 3 EH BILDU

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- 2022ko maiatzaren 24an (2014 zenbakiko ED), Aiarako Kuadrillak Udal honi eskatu zion gaur egun Aiarako Kuadrillako bulegoak dauden eraikina lagatzeko, La Iglesia auzoko 2. zenbakian, Arespalditzan.

AINTZAT HARTU DA.- Proposamena 2022ko ekainaren 14ko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordean eztabaidatu zen, eta bertaratutako zinegotziek aho batez aldeko irizpena eman zuten.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22. artikulua emandako eskumenak erabiliz,

ERABAKI hau hartzea proposatzen zaio OSOKO BILKURARI:

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina Aiarako Kuadrillari lagatzeko adostasuna adieraztea, La Iglesia auzoko 2. zenbakian, Arespalditzan. (Sindikatuaren eraikina)

BIGARRENA.- Bilkura horretarako espedienteari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Aiarako Kuadrillari helaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

9.- Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, egindako erakunde-adierazpena.



Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute, eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, egindako erakunde-adierazpena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, egindako erakunde-adierazpena.

“Declaración con motivo del 8 de marzo de 2023
Ayuntamiento de Ayala

Han pasado más de 25 años desde que se adoptó el acuerdo internacional de lograr la participación política y distribución equilibrada del poder entre hombres y mujeres en la toma de decisiones en la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. A pesar de los avances, la mayoría de los países del mundo no ha logrado la Igualdad de género, y son pocos los que han establecido o cumplido metas ambiciosas respecto de la paridad entre los sexos.

En el contexto actual de crisis múltiples se busca replantear los modelos social, económico, medioambiental y de gobernanza a fin de reducir las brechas de desigualdad, que han aumentado para gran parte de la humanidad y, principalmente, para las mujeres. Una de las causas de esta brecha es el tema de los cuidados, pues recaen mayormente sobre las mujeres e impiden su participación social. Es el tiempo de liderar para transformar las organizaciones y la sociedad hacia modelos de relación mucho más inclusivos, cooperativos y creativos. Se necesita avanzar hacia un modelo de gobernanza feminista de colaboración multisectorial; basada tanto en la escucha como en la puesta en marcha de procesos de la participación y distribución de poderes y responsabilidades.

Urgen respuestas integrales que respondan adecuadamente a esta situación de crisis, en todos los ámbitos y niveles, y es imprescindible activar este sector y empezar a incluir nuevas soluciones. Ante esta cruda realidad, nuestro pueblo debe iniciar una dinámica transformadora y compartida, reconociendo desde las instituciones ese esfuerzo y compromiso, recogiendo propuestas y reivindicaciones, e impulsando y potenciando espacios de encuentro y diálogo.

Las organizaciones feministas y de mujeres en su diversidad y entre generaciones, vienen movilizándose para denunciar y reclamar una serie de cuestiones de igualdad: desde la justicia racial hasta la igualdad salarial, el fin a la violencia y la discriminación contra las mujeres, la eliminación del acoso sexual, la justicia climática, el mantenimiento de la paz y más.

La participación y el liderazgo de las mujeres en la política y en todos los ámbitos de decisión en pie de igualdad son fundamentales para alcanzar los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 2030. Sin embargo, desde el ámbito local hasta el global, la participación de las mujeres en la toma de decisiones en las esferas formales sigue siendo limitado, ya sea en la política, la administración pública, empresas privadas, universidad, sindicatos, asociaciones y cooperativas, y otros sectores.

Este 8 de marzo, día internacional de las mujeres, es prioritario impulsar los liderazgos de las mujeres desde un modelo de gobernanza feminista y liderazgo compartido. Trabajar por

I.F.K. C.I.F. P0101100F



generar las condiciones para aumentar la participación de las mujeres en la toma de decisiones en igualdad. Hay que entender la participación de las mujeres desde una perspectiva mucho más amplia, no solo la formal o normativa, sino que tenemos que cambiar las condiciones en las que las mujeres puedan participar de los espacios de decisión.

Para trabajar por la participación de las mujeres es necesario...

- *combatir las **resistencias e inercias** que impiden compartir y ceder espacios de poder, rompiendo los techos de cristal con medidas que garanticen la presencia de las mujeres en todos los espacios, en toda su diversidad y con perspectiva interseccional;*
- *avanzar radicalmente en una **distribución corresponsable de las tareas de cuidado**, porque es un principio de justicia y porque la sobrecarga de las mujeres limita su ejercicio pleno de la ciudadanía;*
- *poner en valor el **sector profesional de los cuidados** precarizados y otros trabajos feminizados, y reconocer su valor social, mejorando sus condiciones;*

Las voces que dicen que estamos inmersas en una crisis de cuidados vienen de hace tiempo, y de diferentes espacios. Ya hemos dicho en más de una ocasión que la pandemia ha puesto de manifiesto lo que el feminismo venía reivindicando hace tiempo: la vida es vulnerable y dependiente. Es el momento de apostar por mantener la vida en condiciones dignas y justas: eso exige una mirada feminista en todas las políticas que impulsamos desde las instituciones. Frente a la parálisis que provoca en algunos el afloramiento de la crisis, nos sumamos a la llamada del movimiento feminista. Frente a discursos vanos, es hora de establecer y construir cauces de colaboración y defensa del sistema público.

Con ese fin, pondremos en marcha una Mesa de Cuidados, un espacio de decisión para realizar un análisis sobre el sistema de cuidados mediante el diálogo, el diseño y la puesta en marcha de estrategias público-comunitarias, dando continuidad al proceso que empezó el año pasado en el Encuentro Comarcal de Igualdad. Deberán participar, entre otros, técnicas y cargos públicos municipales, agentes sindicales, sociales, movimiento feminista y otros movimientos populares.

- *combatir los **estereotipos y prejuicios** que limitan la confianza, credibilidad e influencia de las mujeres en el ejercicio de los liderazgos;*
- *erradicar todas las formas de **violencia hacia las mujeres**, incluidas la violencia política contra las mujeres;*
- *deconstruir las **prácticas y formas de ejercicio del liderazgo** desde modelos androcéntricos basados en la dominación; desconsiderando los tiempos y la responsabilidad del cuidado; que desprecian el talento y saberes de las mujeres y otros colectivos excluidos del poder; y sin valorar el trabajo colectivo;*
- *colocar los **derechos de las mujeres y las niñas** en el centro de una agenda feminista con enfoque interseccional, renovada, radical y transformadora, para combatir la sistemática exclusión de estas en el poder y reducir las brechas de desigualdad.*

*Por eso los Ayuntamientos Vascos, en el marco de nuestras competencias, **nos comprometemos** a impulsar el liderazgo de las mujeres y a favorecer las condiciones para el ejercicio del poder en igualdad. Se trata de fortalecer las políticas que promuevan el empoderamiento y participación de las mujeres en todos los estamentos públicos y privados según*



lo establecido en la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres:

- 1. Seguir fomentando y fortaleciendo Emakumeen Gela, adaptada a las necesidades de cada pueblo.*
- 2. Dotar los programas de la Escuela de Empoderamiento Laia Aiaraldea de recursos y espacios adecuados.*
- 3. Fortalecer la participación del movimiento feminista y las diferentes asociaciones de mujeres en el Foro ABA de mujeres/igualdad desde un firme compromiso de toma de decisiones compartidas.*
- 4. Reforzar la interseccionalidad de los planes de igualdad en todos los ámbitos que conforman nuestra sociedad para llegar a consolidar la participación plena y efectiva de las mujeres en su diversidad.*
- 5. Realizar campañas de comunicación que reconozcan el valor social y político de las tareas de cuidado, prestando especial atención a la corresponsabilidad visibilizando realidades como las de las trabajadoras del hogar.*
- 6. Generar datos desagregados por edad y género para aportar información a la elaboración de políticas que tengan un impacto directo en las vidas de las niñas, adolescentes y mujeres según el mandato de la ley 1/2022.*
- 7. Articular espacios de aprendizaje y empoderamiento para las mujeres que acceden a la política, mediante redes de apoyo, solidaridad y alianza entre mujeres electas, como Basqueskola Sarea y otras.*
- 8. Instar a que EUEDEL proponga protocolos para hacer frente a la violencia política, que impulse la investigación sobre la participación de las mujeres y sobre la capacidad de decisión y apoye los avances hacia una representación equilibrada.*
- 9. Sumarse a la dinámica emprendida por el Movimiento Feminista de Euskal Herria, en primer lugar, apoyando las convocatorias del 8 de Marzo y haciendo un llamamiento a la ciudadanía para que acuda. A partir de ahí manifestamos nuestro compromiso de participar y asumir responsabilidades como agente activo en el proceso que se va a abordar.*

2023ko martxoaren 8rako Adierazpena

Aiarako Udala

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati



handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Arrakalaren zergatietako bat zaintzaren gaia da, gehien bat emakumeen gain jartzen direlako, euren parte hartze soziala oztopatuz. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, eta ezinbestekoa da, eremu hau ere horretara aktibatu eta soluzio berriak mahai-gaineratzen hastea. Errealitate gordin horren aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarriketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuen eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da...

- *botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarri.*
- ***zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gaitasunak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.*
- ***zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.*

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Esan dugu behin baina gehiagotan, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Krisiaren azaleratzeak batzuegan eragiten duen paralisiaren aldean, mugimendu feministaren deiarekin bat egiten dugu.



Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeko garaia da.

Horretarako Zaintza Mahaia jarriko dugu martxan, sistemari buruzko analisia egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko, estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarriketarako prozesuarekin jarraitzeko, iaz Berdintasun Topaketan hasitako bideari jarraipena emanez. Parte hartu beharko dute, besteren artean: udal teknikari eta kargu publikoek, eragile sindikalek, sozialek, mugimendu feministak eta bestelako herri-mugimenduek ere.

- *emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.*
- ***emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.*
- ***lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.*
- ***emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi interseksionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.*

*Horregatik, euskal udalerrioek, gure eskumenen markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:*

1. *Emakumeen Gelarekin jarraitzea, hlerri bakoitzaren beharretara egokituta.*
2. *LAIA Aiaraldea Ahalduntze programa eta eskola baliabide eta leku egokiez hornitzea*
3. *Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko Foroetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.*
4. *Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.*
5. *Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.*



6. *Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskaiten, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko*
7. *Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduentzako-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk*
8. *EUDELERi eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitze gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkariak orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.*
9. *Euskal Herriko Mugimendu Feministak abiatu duen dinamikarekin bat egitea, hasteko eta behin, Martxoaren 8ko deialdiak babestuz eta herritarrei bertaratzeko deia eginez. Hortik aurrera landuko den prozesuan eragile aktibo bezala parte hartzeko eta ardurak hartzeko konpromisoa adierazten dugu. “*

10.- Onestea, bidezkoa bada, “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikitzea.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute, eta hori dela bide,

IKUSI DA.- “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikitze erdua.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Onestea “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikitzea, eta erdua onestea, sinatzeko. Honela dio, hitzez hitz:

“ (e)(a)n, 2023ko(a)ren(e)(a)n.

Euskadi Lagunkoia proiektuari atxikitze sinadura.

..... udalerria Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikiko zaio, ondorengo helburuekin:

- *Komunitateko parte-hartze prozesuak sustatzea;*
- *Herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera, udalerrriaren eskumen alorretan aldaketak egin daitezkeen ahalbidetzea;*
- *Adineko pertsonen herri eta hirietan ongizatea sortzeko duten potentziala aprobetxatzea; eta*
- *Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat sortzea;*



OMEk ezarritako lan metodologiari eta lau faseko zikloari jarraituz (Plangintza, Ezarpena, Ebaluazioa eta Etengabeko Hobekuntza).”

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzari proposamen bat aurkeztu behar diola, onesteko, bidezkoa bada, Luiaondoko Administrazio Batzarrari 903,49 m²-ko lursail bat (Aiarako 3. poligonoko 1333 partzelakoa) doan lagatzea, padel-pista bat eraikitzeko. Gai hau ez dago deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan sartuta, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz,

Gaia osoko bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatu behar da premiazkoa delako Administrazio Batzarrak lagapen-erabakia izatea, proiektua lehenbailehen kokatzeko izapideak hasi ahal izateko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

11.- Erabaki-proposamena, Luiaondoko Administrazio Batzarrari 903,49 m²-ko lursail bat (Aiarako 3. poligonoko 1333 partzelakoa) doan lagatzeko, padel-pista bat eraikitzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko, bidalitako proposamenari dagokionez, 10 urteko luzapena onartzeko aukera islatzea proposatzen duela, lagapenaren iraupenaren 30 urteak igaro ondoren besterik adostu ez bada.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Abenduaren 9an, Luiaondoko Administrazio Batzarrak Aiarako 3. poligonoko 1333 udal-partzelaren zati bat doan lagatzeko eskatu zuen, kontsultategia dagoen eraikinaren atzean dagoena, udalerrri osoari zerbitzua emango dion padel-pista bat eraikitzeko.

IKUSI DA.- 2010eko otsailaren 17an, Aiarako Udalak Luiaondon kokatutako hiri-finka bat erosi zion Gasteizko Gotzaindegiari (Aiarako 3. poligonoko 1333. partzela). Hona hemen horren deskribapena: etxea lursailekin La Torre kaleko 17. zenbakian, gela hauek ditu: landa-etxebizitza, trastelekua, lastategi ertzeko ukuilua, lastategi ertzeko ukuilua eta lastategi ertzeko ukuilua.

IKUSI DA.- Partzela horretan eraikin bat dago, Udalak osasun, kultura eta administrazio erabileretarako birgaitu duena. Era berean, Udalak urbanizazio-obra egin ditu, eraikinerako



sarbideak egokitzeko eta parkin bat egiteko. Hala ere, erabili ez den lursail bat dago, zelai berde egoeran dagoena.

IKUSI DA.- Partzela ezin da bereizi, ez baita betetzen sektoreko araudi aplikagarrian ezarritako gutxieneko unitatea.

IKUSI DIRA.- Udal idazkariak otsailaren 22an sinatutako txostenak, prozedura aplikagarriari eta laga nahi den ondasunaren ondare-izaerari buruzko espedientean jasota daudenak.

IKUSI DA.- Lagatu nahi den partzelaren zatia zehazten duen espedientean dagoen plano 903,49 m²-ko erabilera-lagapenaren xede izango da.

IKUSI DA.- Espedientean dagoen udal-teknikariak sinatutako balorazio-txostenaren arabera, erabilera-lagapenaren xede den ondasunaren balioa 22.261,99 eurokoa da.

AINTZAT HARTU DA.- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 106. Artikulua; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 79. Artikulua; Kode Zibilaren 1740tik 1752ra bitarteko artikulua; Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 6., 7. eta 92. Artikuluak, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarria.

Udalbatzari honako ERABAKI hau hartzea proposatu zaio:

LEHENENGOA.- Luiaondoko Administrazio Batzarrari doan lagatzea 903,49 m²-ko partzelaren erabilera, Aiarako 3. poligonoko 1333 partzelakoa (planoaren arabera, erabaki honen I. eranskin gisa erantsi da), udalerrri osoari zerbitzua emango dion padel-pista bat eraikitze, 30 urterako.

Partzelaren jabetza Aiarako Udalarena izaten jarraituko da.

BIGARRENA.- Lagapen hau beste 10 urtez luzatu ahal izango da, bi aldeek berariaz hala erabakitzen badute, betiere lagatutako partzelaren zatia lagatutako xederako erabiltzen ari bada.

HIRUGARRENA.- Partzela lagatzeko xedea gehienez ere 5 urteko epean jarri beharko da abian, erabilera-lagapeneko kontratuaren indarraldi osoan zehar mantendu beharko da. (30 urte).

Lagatutako lursaila ez bada padel-pista bat hartzeko erabiltzen, Aiarako Udalari itzuliko zaio erabilera, bere ondasun guztiekin, eta erabilera lagatzeko kontratua suntsituzat joko da, eta Administrazio Batzarrak itzuli egin beharko du ondasuna, erabiltzeko entregatu zen baldintzetan.

LAUGARRENA.- Ondasunaren erabilera doan eta aldi baterako lagatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Instalazioak Luiaondoko Administrazio Batzarraren berezko helburu eta jardueretarako baino ez dira erabiliko (padel-pista).



- Luiaondoko Administrazio Batzarra arduratuko da padel-pista egiteko obrak eta beharrezkoa den urbanizazioa ordaintzeaz, sarbideak indarrean dagoen araudiaren arabera izan daitezkeen; eta pista hori eta lagatuko lursail guztia (903, 49 m²) egoera onean mantentzeaz.

- Udalak ez du bere gain hartzen lagatutako lurretan egin beharreko jardueren gaineko erantzukizunik, ezta eraikitzen diren instalazioetan gerta daitezkeen kalte material edo pertsonalena ere.

- Luiaondoko Administrazio Batzarrak ezin izango du ez obrarik ez eraberritzerik egin Udalaren berariazko baimenik gabe.

- Administrazio Batzarrak erantzukizun zibileko polizan sartuko du erabilera-lagapenaren xede den ondasuna, ondare-ondasunaren erabilerak ekar ditzakeen kalte-galerei erantzuteko.

BOSGARRENA.- Lagapena azkentzeko arrazoiak izango dira:

- Instalazioak lagatutako helburu eta jardueretarako ez erabiltzea.
- Indarrean dagoen segurtasun-araudia ez betetzea.
- Akordio honen HIRUGARREN puntuan ezarritako baldintza orokorrak ez betetzea.
- Udalak ondasuna erabiltzeko premia larria izatea.

SEIGARRENA.- Lagapenaren epea igarotakoan edo lagapena iraungitakoan, ondasunak Udalarari itzuliko zaizkio osagai eta osagarri guztiekin, eta Administrazio Batzarrak ezin izango du konpentsazio ekonomikorik edo kalte-ordainik eskatu egindako obregatik, eta utzi ziren egoeran, Udalak hala eskatuz gero, eta beharrezkoa izanez gero, administrazio-utzarazpena erabiltzeko aukera dago.

ZAZPIGARRENA.- Lagapena administrazio-agiri batean formalizatzea, lagatutako ondasuna, haren egoera fisikoa eta lagapen-unean duen kontserbazio-egoera deskribatuz, eta Udaleko alkate-udalburuari beharrezko dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.

Jarraian, Alkatea jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzari proposamen bat aurkeztu behar diola, onesteko, bidezkoa bada, 2023an Alday Fundazioari 2022ko dirulaguntza izenduna gainditzen zuen zenbatekoa ordaintzeko 1/2023 kreditu gehigarriaren espedientea, 2022an onetsitako dirulaguntza izendunarekiko gehiegizko gastuengatik.. Gai hau ez dago deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan sartuta, eta Toki Erakundearen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz,

Gaia osoko bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatu behar da ordainketa adosteko eta ondorioak ahalik eta azkarren izan ditzan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

12. Erabaki-proposamena, 2023an Alday Fundazioari 2022ko dirulaguntza izenduna gainditzen zuen zenbatekoa ordaintzeko 1/2023 kreditu gehigarriaren espedientea onesteko, bidezkoa bada, 2022an onetsitako dirulaguntza izendunarekiko gehiegizko gastuengatik.



Idazkari kontu-hartzaile andreak hartu du hitza bere eragozpen-txostenaren zentzua azaltzeko. Txosten hori hitzez hitz transkribatuko da akordioan.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022ko abenduaren 22an Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzeta-hitza onetsi zen, 2022an Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.

Hilero, 2022. urtearen hasieratik, Alday Fundazioak dirulaguntza honen xede diren gastuen egiaztagiriak aurkeztu ditu (fakturak eta langile-gastuak), baita jarduerari buruzko gainerako agiriak ere.

Hilero (azaroko gastuak barne) 2021ean onetsitako hitzarmenaren arabera dagozkion zenbatekoak ordaindu direla, dirulaguntzaren aurrerapen gisa. 2022rako onetsitako hitzarmenak ez du ezer aldatzen diruz lagun daitezkeen gastuei buruz; beraz, ez da ordaindu behar 2022ko urtariletik azarora bitarteko hilabetei buruzko erregularizaziorik.

2023ko urtarrilaren 5ean eta 16an, Alday Fundazioak abenduko gastuei dagokien agiri guztiak aurkeztu zituen, baita emandako dirulaguntza justifikatzeko hitzarmenean eskatutako gainerako dokumentazioa ere.

Aurkeztutako gastuak, behar bezala justifikatuta eta ordaindu gabe daudenak, 2022ko abendukoak, honako hauek dira:

- Abenduko funtzionamendu-gastuak, guztira: 7.934,99 €
- Abenduko mantentze-gastuak, guztira: 1.108,17 €
- Abenduko kudeaketa-gastuak, guztira: 2.001,36 €.

Diruz lagundu daitezkeen gastu guztien guztizko zenbatekoa 11.044,52 eurokoa da.

2022 ekitaldiko aurrekontu-aplikazioak 6.133,71 euroko zenbatekoa zuen; beraz, sinatutako hitzarmenaren eta dirulaguntzei buruzko araudiaren arabera, ezinezkoa zen dagokion aurrekontu-aplikazioaren zenbatekoa baino zenbateko handiagoa ordaintzea zuzeneko dirulaguntza gisa, aurrekontuan izendatuta baitzegoen. Beraz, abenduko gastuei zegokienez, **6.133,71 euro** ordaindu behar ziren gehienez.

2023ko urtarrilaren 25eko fiskalizazio-txostenaren arabera, 6.133,71 euro ordaindu zitzaizkion Alday Fundazioari.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak 2023ko otsailaren 23an sinatutako 1/2023 eragozpen-txostena, hitzez hitz honako hau dioena:

**“ESKU-HARTZAILLETZA TXOSTENA
GASTU ERAGOZPENAK**

I.F.K. C.I.F. P0101100F



AYUNTAMIENTO DE AYALA - AIARAKO UDALA.

ERAGOZPEN-ZK.: 1/2023

GAIA: 2023an Alday Fundazioari 2022ko dirulaguntza izenduna gainditzen zuen zenbatekoa ordaintzea, 2022an onestitako dirulaguntza izendunarekiko gehiegizko gastuengatik.

1. ERAGOZPEN-MOTA

- **ERAGOZPEN ETENGARRIA**

Dirulaguntzei buruzko araudi orokorra ez betetzea, 2023an 2022. urtean onestitako dirulaguntza izendunaren aldean justifikatutako gehiegizko gastuei dagozkien zenbatekoa ordaindu (4.910,81 euro) nahi izateagatik.

- **KASUAREN DESKRIBAPENA:**

- Aurrekariak.

2022ko abenduaren 22an Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzeta-hitzarmena onetsi zen, 2022an Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.

Hilero, 2022. urtearen hasieratik, Alday Fundazioak dirulaguntza honen xede diren gastuen egiaztagiriak aurkeztu ditu (fakturak eta langile-gastuak), baita jarduerari buruzko gainerako agiriak ere.

Hilero (azaroko gastuak barne) 2021ean onestitako hitzarmenaren arabera dagozkion zenbatekoak ordaindu direla, dirulaguntzaren aurrerapen gisa. 2022rako onestitako hitzarmenak ez du ezer aldatzen diruz lagun daitezkeen gastuei buruz; beraz, ez da ordaindu behar 2022ko urtarriletik azarora bitarteko hilabetei buruzko erregularizaziorik.

2023ko urtarrilaren 5ean eta 16an, Alday Fundazioak abenduko gastuei dagokien agiri guztiak aurkeztu zituen, baita emandako dirulaguntza justifikatzeko hitzarmenean eskatutako gainerako dokumentazioa ere.

Aurkeztutako gastuak, behar bezala justifikatuta eta ordaindu gabe daudenak, 2022ko abendukoak, honako hauek dira:

- Abenduko funtzionamendu-gastuak, guztira: 7.934,99 €
- Abenduko mantentze-gastuak, guztira: 1.108,17 €
- Abenduko kudeaketa-gastuak, guztira: 2.001,36 €.

Diruz lagundu daitezkeen gastu guztien guztizko zenbatekoa 11.044,52 eurokoa da.

2022 ekitaldiko aurrekontu-aplikazioak 6.133,71 €-ko zenbatekoa zuen; beraz, sinatutako hitzarmenaren eta dirulaguntzei buruzko araudiaren arabera, ezinezkoa zen dagokion aurrekontu-aplikazioaren zenbatekoa baino zenbateko handiagoa ordaintzea zuzeneko dirulaguntza gisa, aurrekontuan izendatuta baitzegoen. Beraz, abenduko gastuei zegokienez, **6.133,71 €** ordaindu behar ziren gehienez.

2023ko urtarrilaren 25eko fiskalizazio-txostenaren arabera, 6.133,71 € ordaindu zitzaizkion Alday Fundazioari.

- Eragozpen-kasua.

Alday Fundazioari 4.910,81 euro ordaintzeko alkatetzaren proposamenaren aurkako eragozpen-txosten hau egin da, 2022. urtean onestitako dirulaguntza izendunaren aldean justifikatutako gehiegizko gastuei dagozkienak.

- **IZAPIDEA**



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Eragozpen-txosten hau, udal kontu-hartzaileak sinatua, organo eskudunari bidaliko zaio, ezesteko: UDALBATZA, Alday Fundazioari dirulaguntza emateko hitzarmena onesteko eskumena organo horrena denez, eta eragozpen etengarri bat denez, eta eragozpen izaerako kasua denez, zenbateko hori 2023an ordaintzeak, 2023rako luzatutako aurrekontua aplikatuta (231.481.000 zenbakia), esan nahi du ez dagoela kreditu nahikoa eta egokia 2023rako dirulaguntza izendun horren betebeharrak bere gain hartzeko.

Arabako Foru Aldundiko dagokion sailak emandako desadostasun-txostena eskatu ahal izango du Udalbatzak.

Txosten hori ikusita, eskatzen bada, idazkari-kontuhartzailetza honek eragozpena kentzea bidezkoa den ala ez jakinaraziko du.

Eragozpena kentzen ez bada eta horren aurkako ebazpena hartzen bada, eragozpena jaso beharko da akordio horretan.

OHAR GEHIGARRIAK

2023rako luzatutako aurrekontua aplikatuta (231.481.000 zenbakia) aldatu beharko da, dagoen esleipena 4.910,81 eurotan handitzeko, udalbatzak kopuru hori ordaintzea erabakitzen badu, 2023ko dirulaguntzari dagokion ordainketa egin ahal izateko.

ERANSKINA

2023an ALDAY FUNDAZIOARI 2022ko DIRULAGUNTZA IZENDUNA GAINDITZEN ZUEN ZENBATEKOA ORDAINTZEKO ONESPENA FISKALIZATZEA, 2022an ONESTITAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREKIKO GEHIEGIZKO GASTUENGATIK.

Data: 2023/02/23

Adm.: Esp.: Dirulaguntza zuzena Alday Fundazioari, 2022an Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeagatik (2022/1/S04.03.03.02)

Aurrekontu-partida: 231.481.000

2022an onetsitako zuzeneko dirulaguntzaren gehiegizko gastua: 4.910,81 euro

FISKALIZATU BEHARREKO ALDERDIA.

- Zuzeneko dirulaguntzen araudi orokorra betetzea eta luzatutako aurrekontua aplikatuan aurrekontu-esleipenik ez izatea, 2023an zuzeneko dirulaguntzaren betebeharrak bere gain hartzeko.

EZ DA BETETZEN (zuzeneko dirulaguntzei buruzko araudi orokorra ez betetzea)

OHARRAK:

Ezin da 2023. urtearen kargura 2022. urtean onetsitako dirulaguntza izendunaren aldean justifikatutako gehiegizko gastuei dagozkien zenbatekoa ordaindu (4.910,81 euro).

FISKALIZAZIOAREN EMAITZA

ERAGOZPEN ETENGARRIA

KONTU-HARTZAILEA

I.F.K. C.I.F. P0101100F



IKUSI DA.- 2022ko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabiltzeko beharra, 2023rako luzatutako udal-aurrekontuan gastu-partida horiei kreditu handiagoak emateko eta 2023rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2024ra arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Kontu-hartzailetzako organoak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatzen du) jasotakoaren bat etorritz. Txostena Udalbatzari aurkeztuko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera ezagut dezan.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak 2023ko otsailaren 23an emandako aurkako txostena, lehen aipatutako eragozpen-txostenean arrazoitua.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Horregatik guztiagatik, Aiara-Ayalako Udaleko Udalbatzari honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Udal kontu-hartzaileak 2023ko otsailaren 23an sinatutako 1/2023 zenbakiko eragozpena kentzea, 2023an Alday Fundazioari 2022ko dirulaguntza izenduna gainditzeko zuten zenbatekoa ordaintzeko, 2022an onetsitako dirulaguntza izendunarekiko gehiegizko gastuengatik, eta udal-diruzaintzari Alday Fundazioari 4.910,81 euro ordaintzeko agintzea, 2022ko dirulaguntza izendunaren espedienteko gehiegizko gastu justifikatuei dagokiena.

Bigarrena.- Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEK OA/€
231.481.000	ALDAY FUNDAZIOAREN DIRULAGUNTZA CRAD	4.910,81 €.

ZENBATEKOA GUZTIRA: 4.910,81 €.

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatu dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarreraren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:



<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	4.910,81 €.
	GUZTIRA	4910,81 €.

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerren guztizkoaren berdina da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliouduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan dituzaten.

Laugarrena.- Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da, eta onartu edo baztertu egin beharko dira.

Bosgarrena.- Erabaki honen lehenengo puntua Alday Fundazioari jakinaraztea.

13.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/18 eta 2023/95 bitarteko Alkatetza Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/18.- Baser Comercializadora de Ref. SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/19.- I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.- Arespalditzan transformadorea aldatzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/20.- JA.V.G. (SOLAR PROFIT SERVICES SL).- Menoioko eraikinean instalazio fotovoltaikoko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/21.- Luiaondoko San Lorenzo kaleko 20 zenbakiko jabeakideen erkidegoa.- Luiaondoko eraikina birgaitzeko obra-hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzea eta obra-amaierako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/22.- Zorroza Gestión SL.- Alkatetzaren 2022/751 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezestea.-

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/23.- Eracustic SL.- Garobel SL.- Murgan eraikina eraisteko agindua ematea eta eraikina eraisteko proiektua aurkezteko epea ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/24.- J.G.L.- Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroan izena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/25.- LA.S.T.- Luiaondoko etxebizitzan sukaldea berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/26.- G.M.DJ.- Luiaondoko etxebizitzan fatxada egokitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/27.- EDP Clientes SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/28.- Alkatetza-eskumenak lehen alkateordeari eskuordetzea, 2023ko urtarrilaren 19tik 20ra.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/29.- L.M.S.- Txakur arriskutsuen lizentzia berritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/30.-U.G.G.- Luiaondoko etxebizitzaren ondoko lursailean instalazio fotovoltaikoko obra egiteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/31.- A.M.E.- Zuatza etxebizitzan instalazio fotovoltaikoko obrak egiteko udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/32.- J.L.R.- Menagaraiko partzela ixteko obra legezatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/33.- Aiaran basurde-arrastoko txakurrak trebatzeko zentroa sortzeko Plan Bereziari buruzko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/34.- Alday Fundazioa. Eguneko Zentroaren kudeaketa-gastuetarako ekarpen ekonomikoa, 2022ko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/35.- I.A.V.- Salmantongo eraikinean instalazio fotovoltaikorako emandako obra-lizentziaren uko egitea onartzea eta EIOZ kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/36.- Comercializadora Regulada Gas & Power. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2022 ekitaldia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/37.- Total Energies Electricidad y Gas España SA.- Jabari publikoa okupatzeagatik tasaren likidazioa, 2022ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/38.- Elkarkidetza Pentsioak. 2023ko urtarrileko faktura-likidazio gastua onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/39.- J.J.A.M.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/40.- L.A.U.- Luiaondoko etxebizitzaren inguruan espaloia egiteko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/41.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Luiaondon markesinak instalatzeko obra-hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/42.- D.M.C.- Erbin zalditegia eraikitzeke obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/43.- Datuak babesteko zerbitzu ordezkaria kontratatzeke espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/44.- J.C.R.- Murgan txakur-egoitza eraikitzeke interes publikoa deklaratzeko eskatzea Arabako Foru Aldundiari.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/45.- T.E.I.- Olabazarreke partzela ixteke horma berreraikitzeke obrak egiteke udal-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/46.- Zener Comunicaciones SA e/r JI.M.E.- Luiaondoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/47.- Alkatetza-eskumenak lehen alkateordeari eskuordetzea, Gentza Alamillo Udaetak eskatutako obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA.- 2023/48 .- Aiarako hainbat bidetako ertzak altueran inautesteko zerbitzu-kontratua adjudikatzea - Belako Lanak SL.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/49.- Erregistratutako fakturen kontularitza-zerrenda onestea, F/2022/14.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/50.- G.A.U.- Luiaondoko etxebizitza-trastelekuan teiltua aldatzeko eta sabai faltsua jartzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/51 .- "Aiarako Jolas Txokoak" udaleku-zerbitzuaren lehen luzapena - Aiaraldea Kooperatiba Elkartea

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/52.-J.L.M.- Murgako partzelan igerilekua eraikitzeko obretarako udal-lizentzia eskaerari uko egitea onartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/53.- Alday Fundazioa. Eguneko Zentroaren kudeaketa-gastuetarako ekarpen ekonomikoa, 2022ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/54.- A.A.C.- TMIZn hobaria ematea, familia ugariaren titulua egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/55.- Luyando System SL.- Jarduera irekitzeko baimena emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/56.- GALEMYS SL.- Zerbitzua amaitzeagatik Udalean jarritako behin betiko fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/57.- M.M.I.- 112 608 – 165 zenbakiko aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/58.- I-DE REDES INTELIGENTES SAU.- Hondakinak kudeatzeko fidantzea eskatzea Artziniega-Menagarai aireko linea elektrikoa aldatzeko obra-lizentzia emateko, 9030 eta 9032 euskarrietan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/59.- 2023ko urtarrileko nominen ordainketa onestea, alkatea eta langileak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/60.- 2023ko urtarrileko nominen ordainketa onestea, PECO 2022-23 kontratazioko langileak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/61.-Zorroza Gestión SL- Informazio publikorako sarbidea.- Murgako industrialdeko saneamendu-sarearen planoen kopiak eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/62.- I-DE REDES INTELIGENTES SAU.- Hondakinak kudeatzeko fidantzea eskatzea Artziniega-Menagarai erdi-tentsioko aireko linea aldatzeko obra-lizentzia emateko, 9015 eta 602 euskarrietan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/63.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, gas- eta elektrizitate-horniduragatik, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/64.- Energía XXI Comercializadora de Ref SL.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, energia-horniduragatik, 4/2022.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/65.- Regsiti Comercializadora R.SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, energia-horniduragatik, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/66.- Repsol Comercializadora de E y G SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, elektrizitate-horniduragatik, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/67.- J.M.U.- Arespalditzan dagoen etxebizitzan ate nagusia aldatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/68.- FJ.A.G.- Luiaondoko itxitura konpontzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/69.- Telefónica de España SA.- AFAko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuaren txostena helaraztea eta eskatutako obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/70.- Udalbatzako kideei egindako ekarpen ekonomikoa, 2023ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/71.- Udalerriko alderdi politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2023ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/72.- Erregistratutako fakturen kontularitza-zerrenda onestea, F/2022/15.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/73.- ME.G.L.- Luiaondoko eraikinean leihoak aldatzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/74.- P.V.V.- Hirigintzako zaharberritze-espeditentea hastea, Olabazarreko Aiarako 4. poligonoko 607. lurzatian dagoen nekazaritzako eta abeltzaintzako txabolan ezkutuko obra txikiak egiteagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/75.-Repsol Repsol Comercializadora de E y G SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, gas-horniduragatik, 4/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/76.- ME.L.U.- Luiaondoko etxebizitzan bainugela berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/77.- EV.M.P.- Luiaondoko etxebizitzan bainugela eta sukaldea berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/78.- Aiarako Udaleko zerbitzuetako langileen eta peoi lanpostuaren aldi baterako ordezkapenentarako lan-poltsak sortzeko deialdia arautuko duten oinarriak zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/79.-D.F.A.- PFEZ atxikipena ordaintzea, 2022ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/80.-D.F.A.- 2022ko BEZaren urteko likidazioa ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/81.- M.G.I.- Marñoko baratzezaintza eta apaindura landareen biltegi eta mintegirako lokala egokitzeko obretarako udal-lizentzia ematea eta jarduera hasteko PJS aurkezteko eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/82.- Informazio publikorako sarbidea.- Menagaraiko 733 partzelarekin lotutako espeditenteko dokumentuen kopiak eskatzea, Menagarai-Beotegiko ABk aurkeztua.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/83.- Informazio publikorako sarbidea.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak jarritako salaketa-espeditentea kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/84.- Telefónica España SA.- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren araberako gaixotasunei buruzko AFaren txostena heleraztea, eta obra-lizentzia emateko eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/85.- R.M.M.D.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/86.- N.L.E.- Izorian lanabesen etxola eraikitzeke obra-hondakinak kudeatzeko obra-lizentzia emateko espeditentea amaitzea eta fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/87.- Aiara udalerrian nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzu-kontratuaren 2. luzapena - Elder Medioambiente SLL.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/88.- A.M.E.- Zuhatzan kokatuta dagoen etxebizitzaren estalkian instalazio fotovoltaikoa jartzeko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/89.- Etorki, Koop.Elkartea.- Zerrategi-instalazio berrirako obra-hasierako baimena ematea.- I. fasea.- Partzela egokitzea eta urbanizatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/90.-P.V.V.- Informazio publikorako sarbidea.- Olabezarreko 4. poligonoko 607 partzelan dagoen txabola behar ez bezala erabiltzeagatik jarritako salaketa-espeditenteak kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/91.- Gu Ere Bertsotan 2023 Zerbitzua - Arabako Bertsozale Elkartea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/92.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko programak eta/edo jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdiari heltzeko akordioa, Arabako Foru Aldundiak argitaratua, 2023. urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/93.- I-DE REDES INTELIGENTES SAU.- Artziniega-Menagarai aireko linea elektrikoa aldatzeko obra-lizentzia ematea, 9030 eta 9032 euskarrietan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/94.- I-DE REDES INTELIGENTES SAU.- Artziniega-Menagarai erdi-tentsioko aireko linea aldatzeko obra-lizentzia ematea, 9015 eta 602 euskarrietan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/95.-Ipar Oil Bi, L Etxaurren ikastola B gasolioz hornitzea.

14.- Eskaerak eta galderak.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza Batzarretan Eusko Jaurlaritzaren txostena jaso dela esateko; bertan, esaten da Batzarrei lizentziak emateko ez zaiela hondakinak kudeatzeko fidantzarik eskatu behar. Batzarrek zerbait egin behar ote duten galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du udalak ofizioz jardugo duela, hirigintza sailari eskatu zaio itzultzeko abalak dituzten eta oraindik jarri ez dituzten batzarren zerrenda; eta ematen edo itzultzen joango da, bidezkoa bada.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaineratu berandu bidali dutela txostena, ez dela hain erraza izan hori lortzea, zalantza juridikoak zeudelako, txosten juridikoak eskatu behar izan dituztelako hain argi ez zutelako, eta eztabaida piztu du.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) esan du Administrazio Batzarrekin bilera bat egitea aurreikusita zegoela Eneritz aurkezteagatik, eta jada ez badago ere, bilera egin daitekeela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) baietz erantzun du, asmoa bilera egitea da.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza berriro eta esan du Bildu taldeari eskerrak eman nahi dizkiola osoko bilkura honetan ikastolako jarduketaren ideia aurkeztu izanagatik, ekarpen bat gehiago baita, eta ongi dago osoko bilkura honetara ekartzea, gero dagokion lekuan baloratu dadin. Udalerrarentzat ona den guztia, ongi dago osoko bilkurara ekartzea.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza argitzeko berak esan duen gauza bakarra dela batzordeetan beste era batera lan egiten dela eta proposamenak eztabaidatzen direla, baina gero osoko bilkurara landuago eramateko.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak esan du irudipena eman diola gobernu-taldetik erantzun ez diena dela osoko bilkura ez dela ekarpenak jasotzeko tokia, eta berak uste du, gaineratu du, ekarpenak ekar daitezkeela osoko bilkurara. Halaber, galdetu du ea zer moduz joan den bilera eta ea bideragarria ikusten duen udaletxearen obra Foru Planari eskatzeko aukera.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Ondareak ez duela burugabekeria ikusten pasabide batekin besteari lotutako eraikin bat, barruko espazioek zalantzaren bat sortzen dute, altuera desberdinetan forjatuak daudelako, eta dena altuera berean egitea planteatzen da. Foru Planarekin ere ari gara aztertzen ea esku-hartzea moduluen barruan sartzen den. Lantzen ari garen ideia da irisgarritasunaren eta bainugelen gaia xehatzea, obra pixka bat gehiago definitzea eta memoria baloratua egitea, oinarrizko proiektuarekin lanean hasteko. Ez zioten trabarik jarri igogailua kanpoan kokatzeari.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza, AOT plazara aurkeztu diren pertsonetako baten sarrerari buruz hitz egiteko. Esan du behin eta berriz eskatzen duela bere azterketa eta ez zaizkiola eman zuzentzeko ereduak eta irizpideak, eta galdetu du ea ereduren bat eman behar zaien.

Idazkari andreak hartu du hitza eta erantzun du izangai horrek, hasieran, bere azterketaren eta kalifikazio handiena lortu zuen pertsonaren azterketaren kopia eskatu zituela.

La Sra. Concejala D^a Karmele zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro aipatzeko gero ereduak ez zaizkiola pasatu esaten duela.

Idazkari andreak erantzun du ondoren azterketaren ereduak eskatu zuela. Hori harrigarria da, zeren azterketa egin zenean enuntziatuaren alea eramateko baimena eman baitzitzaie, agian ez zuen eraman edo galdu egin zuen. Webgunean azterketaren ereduak eskegi zen.

Ondoren, notari buruzko erreklamazio bat egin du berriro, eta bere ustez lortu behar zuen nota eskatu du. Oposizio gile guztien epea amaitzen denean, eta dauden erreklamazioak ikusta, epaimahaia bilduko da berriro erreklamazioak ebazteko eta prozesuarekin jarraitzeko.



- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro ea asteburuetan gaueko tren bat kentzeagatik kaltetutako udalerrietako beste alkateekin hitz egin den galdetzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du beste alkateekin ez duela hitz egin, baina Renferi hiru aldiz deitu diola, eta ez diotela erantzun, e-mail bidez jarri dela harremanetan, ea erantzuten dioten.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza aipatzeko Aldundiaren sarrera bat dagoela zuntz optikoaren hedapenari buruz (655 zk.). Ez daki informazioa edo zerbait ematen duen. Ez du uste Administrazio Batzarren erantzun asko daudenik, agian Udalak dei diezaieke batzarrei banda zabalik gabeko eremuak dauden ikusteko, zeren eta 2023an hedapen teknikoa eta lotuta ez daudenak horrela geratuko baitira.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du idatzi hori begiratuko duela, zer dioen ikusteko, eta gaineratu du 2022ko Estatuaren hedapen-planak 2024ra arteko betearazpen-epea duela.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ea aurreko osoko bilkuran onetsi zen autobusaren eskaerari buruzko pentsiodunen mozioa bidali den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dakiela, begiratuko duela.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura amaitutzan eman zuen arratsaldeko zortziak eta hogeita bostean, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren guztiaren berri izateko, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko otsailaren hogeita hiruan.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.